# ABADIÑO



## ARMARRIAREN DESKRIBAPENA

Hiru ataleko armarria: 1., Zilarrean tau urdina galdara eta berezko koloreko txirla baten gainean; 2., Zilarrean zuhaitz orlegia errotuta eta otso baltz igarolaria enborraren oinean, eta zuhaitzaren inguruan hamabi lantza berezko kolorean; 3., urdinean, mendi orlegiak eleiza eta zubiarekin, berezko kolorean, eta zubipean uhin urdin eta zilarrezkoak.

## DESCRIPCIÓN DEL ESCUDO

Cortinado: 1º, en campo de plata, una tau de azur, sobre una caldera de sable y una venera de su color; 2º, en campo de plata, un árbol de sinople, arraigado, y un lobo de sable pasante al pie del tronco, rodeado el árbol de doce chuzos de su color; 3º, en campo de azur, unos montes de sinople, con una iglesia y un puente, de su color, y bajo el puente ondas de agua de azur y plata.

## AITAMEN HISTORIKOA

Durangoko merindadeko eleizatea. Historiaurrekoa dogu, eta udal barruti honetan Bolinkoa (aztarnategi solutrensea), Oyalkoba (Brontze Arokoa), Hastakoba eta Albiztey haitzuloak dagoz.

Erdi Aroan bando-gerrak izan ziran bertan, eta oinaztarren aldekoa izan zan. Orduantxe izan zan dorretxe eta gazteluen loraldia, eta batzuk oso ospetsuak dira: Muntxaraz, esaterako –beronen jabea, Pedro Ruiz, 1172. urtean ezkondu zan Urraca Nafarroako infantarekin–; Abadiano, Iñigo de Abadiano eta Perutxo de Abadianoren –Isabel Katolikoaren alkazarraren alkaidea Madrilen– oinetxea zan; Trañajauregui; Larrigan; Lebariojauruegi; Mendilibar; Murueta; Arbaiza; Esterripa; eta Uribarren.



XVI. mendetik Abadiño industriagune garrantzitsua izan zan burdingintzan eta aipagarriak dira batez be Astola, Esterripa, Lebario, Muntxaraz, Murueta eta Trañako burdindegiak, eta honeetako batzuk XIX. menderarte izan dira funtzionamenduan.

## RESEÑA HISTÓRICA

Anteiglesia de la merindad de Durango. De época prehistórica, encontramos en su término municipal las cuevas de Bolinkoa (yacimiento solutrense), Oyalkoba (Edad del Bronce), Hastakoba y Albiztey.

Durante el Medievo fue escenario de las guerras de banderías, siendo partidaria del bando oñacino. Fue entonces cuando proliferaron las casas-torres y "gaztelus", algunos célebres, como el Muntxaraz, cuyo dueño, Pedro Ruiz, contrajo matrimonio, en 1172, con la infanta de Nabarra doña Urraca; Abadiano, solar de Iñigo de Abadiano y Perutxo de Abadiano, alcaide del alcázar de Isabel la Católica en Madrid; Trañajáuregui, Larrigan, Lebariojauruegi, Mendilibar, Murueta, Arbaiza, Esterripa y Uribarren.

Abadiño descolló desde el siglo XVI como importante centro industrial de elaboración de hierro en sus ferrerías de Astola, Esterripa, Lebario, Muntxaraz, Murueta y Traña, funcionando alguna de ellas hasta bien entrado el siglo XIX.

## IKURRIÑA

Ikurriña koadratua; 49 koadro bardinez dago osotuta, bakoitza lau triangelutan banatuta: gorria, beilegia, zuria eta berdea; ordena aldatu egiten da, erdikoa izan ezik, beti da zuria eta. Bertan, atzealdean "ABADIÑO 1872 URTEA" irakurri geinke, eta aurrealdea zuri dago.



## BANDERA

Bandera cuadrada, formada por 49 cuadros iguales, dividido cada uno de estos en cuatro triángulos de los colores rojo, amarillo , blanco y verde, alternándose el orden de los mismos, excepto el central que es blanco, en el que figura la leyenda: "ABADIÑO 1872 URTEA" en el reverso, estando en blanco el anverso.